

DEIALDIAK, BARAÑAINGO UDALAREN ZERBITZURA HAUR-HEZITZAILEAREN LANPOSTUAK BETETZEKO BI HAUTAGAI-ZERRENDA OSATZEKO, UDALAREN HAUR-ESKOLETAN SORTZEN AHAL DIREN BEHARRAK ALDI BATERAKO ASE DAITEZEN.

Barañaingo Udalak dituen pertsonal-beharrak ikusita, hautaprobez bidez honako hauek osatzeko deialdi bat egin da:

- hautagai-zerrenda bat, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran Barañaingo Udalaren zerbitzura Haur Hezitzailearen lanpostua betetzeko, Udalaren Haur Eskoletan sortzen ahal diren beharrak aldi baterako ase daitezten.
- hautagai-zerrenda bat, aipaturako lanpostu horretan aldi baterako kontratatzeko, lanpostu horri dagokionez sortzen ahal diren beharrak ase daitezten.

Deialdiak lanpostuak aldi baterako betetzeko bi hautagai-zerrenda sortzea du helburu, horretarako, hautaprobak eginez: lehenbizikoa Barañaingo Udalaren plantillako langileekin sortuko da, eta bigarrenak pertsonal finkoa biltzen duen aurreko zerrendarekiko izaera subsidiarioa izanen du eta Udaletik kanpoko jendeak osatuko du.

Barañaingo Udalaren zerbitzuko lan-kontratadunen hitzarmen kolektiboko 25. artikuluan ezarritakoa betez, "aldi baterako kontratazioerako zerrendak egiteko deialdiak onartzen direnean, udalak hautaprobetarako deialdia eginen du plantillako langile finkoen artean prestakuntzako hautagaien zerrendak osatzeko, 96/1997 Foru Dekretuaren eta 199/2004 Foru Aginduaren aurreikuspenekin bat etorritik".

Apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, aldi baterako kontratazioaren aurretik, Administrazioak langile finkoei eskainiko dizkie bete nahi dituen lanpostuak, eta, xede horretarako, prestakuntzako hautagaien zerrendak egiteko behar diren hautaprobez deialdia eginen du.

Azaldutakoaren arabera eta Barañaingo Udalaren zerbitzuko lan-kontratadunen hitzarmen kolektiboan, apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuan eta Nafarroako Gobernuak Presidentzia, Justizia eta Barne Sailburuaren abenduaren 30eko 199/2004 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera, eta Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Araudia onartzen duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuko 42.2 c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hauek iragartzen dira:

DEIALDIEN OINARRIAK

Lehenbizikoa.- Deialdien xedea

1.- Arau Orokorrak.

- 1.1. Deialdi hauek honako hau dute helburu: oposizio bidez bi hautagai-zerrenda osatzea, Barañaingo Udalaren zerbitzura Haur-hezitzailearen lanpostuak betetzeko, Udalaren Haur-eskoletan sortzen ahal diren beharrak aldi baterako asetzeko.
- 1.2. Lanpostuak C mailako (edo haren baliokidea) ordainsariak izanen ditu, Barañaingo Udalaren, hango langile funtzionarioen eta hango kontratatu administratiboen arteko Enplegu-baldintzen akordioan (177. zenbakiko NAO, 2017ko irailaren 13koa) ezarritakoaren arabera, eta Barañaingo Udaleko Plantilla Organikoan jasotakoaren arabera.

1.3. Lana lanaldi osoan eginen da, Barañaingo Udaleko langileentzat indarrean dagoen Lan Egutegiaren arabera. Ordutegia zerbitzuaren premietara egokituko da une oro, eta noiznahi aldatu ahal izanen dute organo administratibo eskudunek zerbitzuaren premiek hala eskatzen badute.

1.4. Lana lanaldi osoan eginen da, Barañaingo Udaleko langileentzat indarrean dagoen Lan Egutegiaren arabera. Ordutegia zerbitzuaren premietara egokituko da une oro, eta noiznahi aldatu ahal izanen dute organo administratibo eskudunek zerbitzuaren premiek hala eskatzen badute.

2.- Lanpostuaren ezaugarriak.

Aldi baterako bete beharreko lanpostuaren berezko funtzioak Barañaingo Udaleko Plantilla Organikoan Hezitzaile gisa adierazitako lanpostuarekin zerikusia dutenak dira, udal-organu eskudunek une bakoitzean adierazten dituztenak.

1.- Eratutako zerrenden indarraldia.

Aldi baterako kontrataziorako hautagai-zerrenda honek Barañaingo Udalaren zerbitzura Haur-hezitzailearen lanpostua betetzeko beste edozein hautagai-zerrenda indargabetzen du edo ondorerik gabe uzten du, eta urtebete egonen da indarrean, luzatzeko aukerarekin, edo agortu arte, lanpostua behin betiko betetzeko hautaketa-prozedura espezifikoak egiten hasi arte edo aldi baterako beste kontratazio-zerrenda bat eratu arte.

2.- Prestakuntzako hautagaien deialdia.

Deia eta, hala badagokio, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoerako aitorpena deialdi honetan eta aplikaziozko gainerako araudian ezarritakoaren arabera eginen dira.

Bigarrena.- Deialdia, plantillako langile finkoen artean prestakuntzako hautagaiak aldi baterako kontratatzeko hautagai-zerrenda osatzeko, 96/1997 Foru Dekretuak eta 199/2004 Foru Aginduak ezarritakoarekin bat etorriz.

3.- Deialdiaren Xedea

Plantillako langile finkoen artean, hautaprobez bidez, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran hautagai-zerrenda osatzeko deialdia iragartzen da, 96/1997 Foru Dekretuak eta **199/2004 Foru Aginduak** ezarritakoarekin bat etorritik, aldi baterako Hezitzaile-lanpostua betetzeko, C mailarekin, Barañaingo Udalean sortzen diren premiak asetzeko.

4.- Eskakizunak.

2.1 Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, parte hartu nahi dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Barañaingo Udalaren zerbitzura dagoen langile finkoa izatea, eta gehieneko prestakuntza-aldiaren eskubidea agortuta ez izatea.
- b) Bere lanpostuan gutxienez hiru urtez lanean aritu izana.
- c) Borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.
- d) Honako titulu hauetako bat izatea: Haur Hezkuntzako maisu-maistra izateko gaitzen duen Gradu-titulua, Maisu-maistra titulua Haur Hezkuntzako espezialitatearekin edo Haur Hezkuntzako

Goi-mailako Teknikariaren titulua (urriaren 29ko 1394/2007 Errege Dekretuak arautua); edo eskariak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu horietako bat eskuratzeko moduan egotea. Ondorio horietarako, titulazio baliokidetzat hartuko da abuztuaren 25eko 93/2008 Foru Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarrian xedatutakoa; haren bidez ezartzen baita Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikariaren titulurako egitura eta curriculum Nafarroako Foru Komunitatearen eremurako (hau da, Haur Hezikuntzako Teknikari Espezialista, Komunitatearentzako Zerbitzuak Adarrekoa, eta Haur Hezitzaile Teknikari Espezialista, Komunitatearentzako Zerbitzuak Adarrekoa. Hala badagokio, izangaiak aurkeztu behar du baliokidetasuna, Administrazio eskudunak horretarako egindako ziurtagiriaren bidez

Atzerrian lortutako tituluen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen jatorrizko egiaztagiria behar da edo notarioak edo administrazioak konpultsatutako haren kopia.

Ikasketa baliokideak argudiatzen dituzten hautagaiak baliokidetasun hori aitortzen duen lege- edo erregelamendu-xedapena aipatu beharko dute edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak xede horretarako emandako ziurtagiria aurkeztu.

- e) Euskaraz jakitea beharrezkoa duten lanpostuetarako, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailako euskararen ezagutza egiaztatzea eskatuko da: Nafarroako Gobernuak EGA titulua, Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulua edo baliokidetzat aitortutako titulazioa. Hizkuntzaren ezagutza-maila hori Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuak xede horretarako egindako probaren bidez ere egiaztatzen ahal da. Kasu horretan, proba egin nahi duten hautagaiak deialdian parte hartzeko eskabide orokorrean eman behar dute horren berri. Hautaketa-prozedurako oinarri erkideetako laugarren oinarriko 6.2 atalean aurreikusitako probaren aurretik eginen da proba hori.
- a) Prestakuntzako lehen aldiko hautagaien beste zerrenda batean ez egotea.

2.2 Deialdi honetako 2.1. oinarrian jasotako eskakizun guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen denerako bete behar dira, eta, horrez gain, deialdiaren unean eta prestakuntza-aldian zehar ere iraun behar dute.

3.- Hautaketa-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautaketa-prozesua deialdi honen laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera eginen da.

Hirugarrena.- Deialdia, administrazio-araubidean hautagaiak aldi baterako kontratatzeko hautagai-zerrenda osatzeko, Barañaingo Udalean sortzen diren premiak ase daitezten.
--

1.- Deialdiaren Xedea

Honako xede hau duen deialdia iragartzen da: hautaprobaren bidez eta ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuko 42.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, Hezitzaile-lanpostua betetzeko hautagai-zerrenda bat osatzea, C mailarekin, Barañaingo Udalean sortzen diren premiak asetzeko.

Aldi baterako kontratatzeko hautagaien zerrenda horrek lehendik dagoen edo etorkizunean osatzen ahal den langile finkoen beste edozein zerrendarekiko izaera subsidiarioa izanen du, apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Zerrenda kudeatzeko, aldi baterako kontratazioaren kudeaketa-arauak onartzen dituen Presidentzia, Justizia eta Barne Sailburuaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduan xedatutakoa hartuko da aintzat.

2.- Parte-hartzaileen betebeharrak

2.1.- Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, honako baldintza hauek bete behar dituzte hautagaiek, prozesu honetan onar ditzaten:

- b) 16 urte izatea eta erretiro-adinera iritsi gabe egotea.
- c) Espainiarra izatea, Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarra izatea edo Europako Erkidegoak egin eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Itunak aplikagarri dituen eta langileen zirkulazio askea aplikagarri duen estatu bateko herritarra izatea; espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izanen dute, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, eta haien ondorengoak eta haien ezkontideen ondorengoak ere bai, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, 21 urte baino gutxiago badituzte edo gehiago izanda ere haien kontura bizi ez badira.
- d) Dagozkion funtzioak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa.
- e) Honako titulu hauetako bat izatea: Haur Hezkuntzako maisu-maistra izateko gaitzen duen Gradu-titulua, Maisu-maistra titulua Haur Hezkuntzako espezialitatearekin edo Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikariaren titulua (urriaren 29ko 1394/2007 Errege Dekretuak arautua); edo eskariak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu horietako bat eskuratzeko moduan egotea. Ondorio horietarako, titulazio baliokidetzat hartuko da abuztuaren 25eko 93/2008 Foru Dekretuaren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa; haren bidez ezartzen baita Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikariaren titulurako egitura eta curriculum Nafarroako Foru Komunitatearen eremurako (hau da, Hartzaindegiko Teknikari Espezialista, Komunitatearentzako Zerbitzuak Adarrekoa, eta Haur Hezitzaile Teknikari Espezialista, Komunitatearentzako Zerbitzuak Adarrekoa). Hala badagokio, izangaiak aurkeztu behar du baliokidetasuna, Administrazio eskudunak horretarako egindako ziurtagiriaren bidez.

Atzerrian lortutako tituluaren kasuan, homologazioa egiaztatzen duen jatorrizko egiaztagiria behar da edo notarioak edo administrazioak konpultsatutako haren kopia.

Ikasketa baliokideak argudiatzen dituzten hautagaiek baliokidetasun hori aitortzen duen lege- edo erregelamendu-xedapena aipatu beharko dute edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak xede horretarako emandako ziurtagiria aurkeztu.

- f) Euskaraz jakitea beharrezkoa duten lanpostuetarako, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailako euskararen ezagutza egiaztatzea: Nafarroako Gobernuak EGA titulua, Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulua edo baliokidetzat aitortutako titulazioa. Hizkuntzaren ezagutza-maila hori Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuak xede horretarako egindako probaren bidez ere egiaztatzen ahal da. Kasu horretan, proba egin nahi duten hautagaiek deialdian parte hartzeko eskabide orokorrean eman behar dute horren berri. Hautaketa-prozedurako oinarri erkideetako laugarren oinarriko 6.2 atalean aurreikusitako probaren aurretik eginen da proba hori.

g) Funtzio publikoetarako desgaituta edo zigortuta ez egotea eta zerbitzutik baztertuta edo Administrazio Publiko batetik diziplinaz kaleratuta ez egotea. Nazionalitate espainiarra ez duten hautagaiek zinpeko aitopene bat edo hitzemande bat aurkeztu beharko dute adierazteko beren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina-zehapenik edo zigor penalik ez dutela.

2.2.- Aurreko eskakizunak eskaerak aurkezteko epea bukatzean bete behar dira eta prozeduran zehar iraun.

2.3.- Eskakizun horiek guztiak dokumentu bidez egiaztatu behar dituzte aldi baterako kontratatzeko hautatu eta deitutako hautagaiek, adierazten zaien unean eta kontratua formalizatu aurretik.

2.4.- Dokumentu horiek aurkezten ez dituztenak, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kausa izan ezik, ezin izanen dira kontratatu, eta beren jarduketa guztiak baliogabetuta geldituko dira, parte hartzeko eskaeran egindako faltsutzeagatik izaten ahal duten erantzukizunaren kalterik gabe.

3.- Hautaketa-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautaketa-prozesua deialdi honetako laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera eginen da.

Laugarrena.- Hautaketa-prozeduraren oinarri erkideak.

3. Eskabideak.

Deialdian parte hartu ahal izateko eskaerak Barañaingo Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira (Herritarren Arretarako Bulegoa, 08:30etik 14:00etara) edo legez aurreikusitako edozein bitartekoren bidez. Barañaingo Udaletxeko plaza z/g helbidean kokatuta dago Erregistro Orokorra.

Eskabidea posta-bulego batean aurkezten bada, gutun-azal irekian aurkeztuko da eskaera, Postako langile batek data eta zigilua jar diezaion ziurtatu aurretik.

Eskaerak I. eranskinen ereduaren arabekoak izanen dira prestakuntzako hautagaien kasuan, eta II. eranskinen ereduaren arabekoak, aldi baterako kontratazioarako hautagaien kasuan, eta Barañaingo Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoan (Udaletxeko plaza z/g) jasoko dira. Internet bidez ere lortzen ahal dira, hain zuzen ere, www.baranain.es eta www.baranain.eus helbideetan.

Parte hartzeko eskaeran, hautagaiek adierazi behar dute eskaerak aurkezteko epearen azken egunean eskatutako baldintza guztiak beteko dituztela.

Desgaitasunen bat duten izangaiek, parte hartzeko eskaerarekin batera, beren egoera egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi beharko dute, organo eskudunak emana. Halaber, ariketak egiteko denborak eta bitartekoak egokitze eskatzen ahal dute, horrelakoak beharrezkoak izanez gero; kasu horretan, eskaeran, hala adierazi beharko dute eta, horrez gain, aparteko orrialde batean azaldu beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen dituzten.

Parte hartzeko eskaerarekin batera, hautagaiek honako hauek aurkeztu beharko dituzte: Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, eta eskatutako titulazioaren fotokopia edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean hura lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia; eta ES 84 2100 5181 14 2200064922 zenbakidun kontuan egindako diru-sarreraren bidez 19,20 euroko tasa ordaindu izanaren ordainagiria, espedientea eta azterketa-eskubideak formalizatzeko. Tasa ordaintzen ez bada, izangaia baztertu egingen da.

Eskaera Herritarren Arretarako Bulegoan zuzenean aurkezten duten hautagaiek une horretan bertan eskudirutan ordaintzen ahal dute tasa.

4.- Eskaerak aurkezteko epea.

Eskabideak 15 egun balioduneko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren iragarkia NAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita. Eskaerak aurkezteko adierazitako epea luzaezina izanen da.

5.- Behin-behineko zerrendak.

Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, Barañaingo Udaleko Alkatezak ebazpena emanen du onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak onartuz, eta Barañaingo Udaleko Iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko dira.

Argitalpen-data horretatik aurrera eta hurrengo bost bost egun balioduneko epean, hautagaiek aukera izanen dute erreklamazioak egiteko edo eskaerako akatsak zuzentzeko.

4.- Behin betiko zerrendak.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta haiek ebatzi ondoren, Barañaingo Udaleko Alkatezak Ebazpena emanen du onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrendak onartuz, eta Barañaingo Udaleko Iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko dira, deialdi honetako laugarren oinarriko 6. atalean aurreikusitako hautaketa-proba egiteko datarekin eta lekuarekin batera.

Onartuen zerrendan azaltzeak ez du esan nahi pertsona interesdunei deialdi honetan eskatutako eskakizunak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Kontratatorako deitzean hautagaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa aztertzen denean, ondorioztatzen bada eskatutako eskakizunen bat denboran edo forman ez dutela betetzen, pertsona interesdunek deialdi honetan parte hartzearen ondorioz izaten ahal dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

6.- Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

- **Lehendakaria:** Oihane Indakoetxea Barbería, Barañaingo Udaleko alkatea.
- **Kide-Idazkaria:** Manuel San Gil Hernández, Barañaingo Udaleko Hezkuntza Arloko Administrari-ofiziala
- **Kidea:** María José Murua Irigoyen, Barañaingo I. Haur Eskolako Koordinatzailea.
- **Kidea:** María Iturria Ayerra, Barañaingo II. Haur Eskolako Koordinatzailea.
- **Kidea:** Lucía Sesma Vallés, lan-kontratudunen ordezkaria.

5.2. Kalifikazio-epaimahaiko kideek uko egin behar diote beren karguari, eta Barañaingo Udalari jakinarazi, legean uko egiteko ezarritako arrazoiak tartean badaude. Halaber, hautagaiek epaimahaiko kideak ez onartzeko eskubidea dute baldintza horiek tartean badaude. Uko egiteko

eta ez onartzeko legez ezarritako arrazoiak aplikatzean aldaketaren bat gertatuko balitz epaimahaiaren osaeran, aldaketa hori onartutako eta baztertutako hautagaien zerrendekin batera emanen da aditzera.

5.3. Epaimahaia hautaprobaren aurretik eratu behar da. Epaimahaia ezin izanen da eratu eta ezin izanen du epaia eman bere kideen gehiengo aurkezten ez bada. Halaber, epaimahaia baliozkotasunez eratzeko, bertan egon behar dute Lehendakariak eta Idazkariak.

5.4. Epaimahaiak ebatziko ditu, gehiengo bidez, deialdiaren oinarrien interpretazioaren eta aplikazioaren inguruan planteatzen diren auzia.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistak ekartzen ahal ditu probarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira eta espezialitate horietan oinarrituta lagunduko diote epaimahaiari.

7. Hautaketa-espeditentearen garapena.

6.1.- Hautagaiei Barañaingo Udalaren Iragarki-taulan eta webgunean jarritako iragarkiaren bidez eginen zaie probarako deialdia. Hori nahikoa izanen da deituta daudela ulertzeko.

6.2. Hautaketa-prozesuak ariketa bakarra izanen du, teoriko-praktikoa. Idatziz erantzun beharko zaio 80 galdera teoriko-praktikoz osatutako galdetegiari; erantsitako gai-zerrendako gai buruzkoak izanen dira galderak.

Galdetegiko galdera guztiek hiru aukera izanen dituzte erantzunetan, baina bakarra izanen da baliagarria. Erantzun baliagarri bakoitzari 1 puntu emanen zaio eta erantzun okerrekin 0,25eko zigorra izanen dute galderen balorazioan. Galdera guztien banakako balorazioa berdina izanen da. Hautagaiak ehun eta hogeita minutu izanen dituzte ariketa egiteko.

6.3. Ariketak, gehienez, 80 puntuko balorazioa izaten ahal du, eta 40 puntura iristen ez diren hautagaiak kanporatu eginen dira.

6.4. Ariketa egiteko, gutun-azal itxien sistema erabiliko da.

6.5. Ariketaren kalifikazioa bukatutakoan, Epaimahaiak ariketa egindako lekuan eta Barañaingo Udaleko Iragarki-taulan jarriko du ariketa gainditu dutenen zerrenda, lortutako kalifikazioekin. Aipaturiko zerrenda Internet bidez ere kontsultatzen ahal da, hain zuzen ere, www.baranain.es eta www.baranain.eus helbideetan.

6.6. Ariketarako deialdia dei bakarraren bidez eginen da. Hautagaiak Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gida-baimenarekin joan behar dute deialdira, eta oposiziotik kanpo geldituko dira azaltzen ez diren edo beren nortasuna aipaturiko agirietako baten bidez egiaztatzen ez duten hautagaiak.

7.-Onartuen zerrenda eta deia.

7.1. Hautaketa-prozesua bukatutakoan, Epaimahaiak Barañaingo Udaleko Iragarki-taulan eta probak egin ziren lekuan jarriko du onartuen zerrenda, lortutako puntuazio-ordenaren arabera, eta Tokiko Gobernu Batzordeari igorriko dio behin betiko onespina eman diezaion hautaketa-prozesuaren espeditente osoarekin batera.

Bi hautagaik edo gehiagok puntuazio bera lortzen badute, berdinketa adin handiena duenaren alde deseginen da.

7.2. Onartutako hautagaiei sortzen diren premien arabera deitu ahal izanen zaie, deialdi honetako oinarrietan eta aplikaziozko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

Nolanahi ere, deiak modu bizkorrean egingen dira, hala kontratatzeko beharra ahalik eta agudoen asetzeko. Horregatik, izangai bat lokalizatu ezin bada, zerrendako hurrengoari edo hurrengoari deituko zaie, eskaintako lanpostuak bete arte.

7.3. Pertsona kontratatuei Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean emanen zaie alta eta afiliatu egingen dira, eta haien kontura izanen dira dagokien kuota eta PFEZ atxikipena, dagokien zenbatekoan.

7.4 Horrela eraturako zerrenda Barañaingo Udaleko Giza Baliabideen arloak kudeatuko du.

7.5 Atal honen babespean eraturako zerrendak indarrean egonen dira beste deialdi bat ebatzi arte, eta, kasu horretan, orduan erutzen direnen osagarriak izaten ahal dira. Bestela, zerrenda onartzen denetik, gehienez, 5 urtez egonen dira indarrean.

Zortzigarrena.-Baliabideak.

Deialdi honen, beraren oinarrien eta deialdia aplikatzeko ekintzen aurka honako errekurtsio hauek jartzen ahal dira:

- a) Berraztertze errekurtsioa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean errekurritutako ekintza edo akordioa jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean errekurritutako ekintza edo akordioa jakinarazi edo argitaratu zen egunetik.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal da deialdia egin duen udal-organoaren aurrean, hilabeteko epean errekurritutako ekintza edo akordioa jakinarazi zen egunetik.

Barañainen, 2018ko ekainaren 8an.

I. ERANSKINA, PRESTAKUNTZAKO HAUTAGAIENTZAT

.....JAUNAK/ANDREAK		
NAN/NORTASUN-AGIRIA	JAIOTZA-DATA [URTEA/HILA/EGUNA]	JAIOTERRIA
HERRITARTASUNA	EGUNGO HELBIDEA [KALEA, ZENBAKIA, ESKAILERA,	
POSTA-KODEA / UDALERRIA	TELEFONOAK	POSTA ELEKTRONIKOA

ADIERAZTEN DU:

Ez duela kargua betetzea galarazten dion gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Ez duela indarreko xedapenetan ezarritako desgaitasunik.

Ez dutela baztertu, diziplinazko espediente baten bidez, edozein Administrazio Publikotako zerbitzutik, eta ez dutela kanporatu diziplinazko zigor bidez eta ez dagoela ezgaituta funtzio publikoak betetzeko.

Baduela deialdian eskatutako titulazioa.

Eskaerak aurkezteko adierazitako epea agortzean betetzen dituela eskatutako baldintza eta eskakizun guztiak.

Desgaitasuna duela eta, horregatik, adierazitako arrazoi ondoriotz egokitzapenak eskatzen dituela. (Beste folio batean zehaztuko dira eskatutako egokitzapenak eta eskaeraren arrazoiak).

Eskaerarekin batera, honako hauen fotokopia aurkezten duela:

- Nortasun Agiri Nazionala.
- Aipaturiko titulu akademikoa.
- Espedientea eta azterketa-eskubideak formalizatzeko tasa gisa 19,20 euro ordaindu izanaren ordainagiria.

Deialdian eskatutako baldintzetan euskararen ezagutza egiaztatzeko:

Egiaztatzeko dokumentazioa aurkezten du.

Euskararen ezagutza-probak egitea eskatzen du.

ESKATZEN DU:

Hautapoben bitartez hautagai-zerrenda bat eratzeko deialdian onartua izatea, Barañaingo Udalaren zerbitzura lan egiteko Hezitzaile gisa aldi baterako kontratazio bidez.

Barañainen, 2018koren(e)(a)n

(Sinadura)

II. ERANSKINA, ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO HAUTAGAIENTZAT

.....JAUNAK/ANDREAK		
NAN/NORTASUN-AGIRIA	JAIOTZA-DATA [URTEA/HILA/EGUNA]	JAIOTERRIA
HERRITARTASUNA	EGUNGO HELBIDEA [KALEA, ZENBAKIA, ESKAILERA,	
POSTA-KODEA / UDALERRIA	TELEFONOAK	POSTA ELEKTRONIKOA

ADIERAZTEN DU:

Ez duela kargua betetzea galarazten dion gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Ez duela indarreko xedapenetan ezarritako desgaitasunik.

Ez dutela baztertu, diziplinazko espediente baten bidez, edozein Administrazio Publikotako zerbitzutik, eta ez dutela kanporatu diziplinazko zigor bidez eta ez dagoela ezgaituta funtzio publikoak betetzeko.

Baduela deialdian eskatutako titulazioa.

Eskaerak aurkezteko adierazitako epea agortzean betetzen dituela eskatutako baldintza eta eskakizun guztiak.

Desgaitasuna duela eta, horregatik, adierazitako arrazoen ondorioz egokitzapenak eskatzen dituela. (Beste folio batean zehaztuko dira eskatutako egokitzapenak eta eskaeraren arrazoiak).

Eskaerarekin batera, honako hauen fotokopia aurkezten duela:

- Nortasun Agiri Nazionala.
- Aipaturiko titulu akademikoa.
- Espedientea eta azterketa-eskubideak formalizatzeko tasa gisa 19,20 euro ordaindu izanaren ordainagiria.

Deialdian eskatutako baldintzetan euskararen ezagutza egiaztatzeko:

Egiaztatzeko dokumentazioa aurkezten du.

Euskararen ezagutza-probak egitea eskatzen du.

ESKATZEN DU:

Hautapoben bitartez hautagai-zerrenda bat eratzeko deialdian onartua izatea, Barañaingo Udalaren zerbitzura lan egiteko Hezitzaile gisa aldi baterako kontratazio bidez.

Barañainen, 2018koren(e)(a)n

(Sinadura)

ANEXO III TEMARIO

- 2.-** El Proyecto Educativo de Centro y la propuesta pedagógica.
- 3.-** La Función del Educador/a en la Educación Infantil. Competencias, habilidades y actitudes.
- 4.-** Las relaciones interactivas entre el niño y el educador.
- 5.-** Metodología basada en la observación y la experimentación. La programación del trabajo a largo y corto plazo.
- 6.-** La documentación del trabajo realizado.
- 7.-** Momentos evolutivos más significativos en la etapa de 0 a 3 años.
- 8.-** La intervención con las familias: participación, comunicación y colaboración.
- 9.-** Autonomía y salud: Necesidades infantiles primarias. Alimentación, control de esfínteres, sueño, aseo, vestido. La hora de la comida como momento educativo. El descanso infantil.
- 10.-** El juego en el desarrollo general de los niños. El juego como recurso didáctico. Evolución del juego infantil. El juego heurístico. Materiales y recursos que favorecen el juego. Papel educador en el juego.
- 11.-** Organización y evaluación de espacios y tiempos. Ritmos y rutinas cotidianas. Organización de espacios: Rincones, zonas de juego y descanso.
- 12.-** Los talleres como metodología basada en el interés y en la actividad del niño.
- 13.-** Influencia de las principales corrientes Psicopedagógicas en la Educación Infantil: Steiner, Decroly, Freinet, Vigotsky, Bruner y Ausubel.
- 14.-** Emmi Pikler, Montessori y libertad de movimiento.
- 15.-** La pareja educativa según la filosofía pedagógica de Loris Malaguzzi.
- 16.-** La pedagogía de la escucha. Proyectos y propuestas frente a límites y programaciones. La escucha como base de la documentación.